

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harreman estua izan nahi dugu eta batez ere, haien iritzia kontuan hartzen dugula jakitea nahi dugu. Horretarako, mahaietan papertxo bat utziko dugu haien iritzia janariari buruz, zerbitzuari buruz... jakiteko eta hobekuntzak egin ahal izateko. Gainera, fideltasuna lortzeko, gure jatetxera lehenengo aldiz joatean txartel bat eskeiniko diegu eta berriro joaten diren bakoitzean zigilu bat jarriko diogu txartelari, deskontuak lortzeko balio dutenak. Horrela, leialtasuna eta fideltasuna sarituz. Instagramen, Tik token, Facebooken eta Twitterren noizean behin zozketak eskeiniko genituzke gure jatetxeari buruzko post bat publikatzearen truke parte hartze lortuz eta honela deskontuak, janaria dohainik edota beste sari batzuk emango genuke. Egun berezietan (gabonak, gure jatexearen urtemuga, san valentin...) beste opari batzuk eskeiniko genituzke gure bezero leialen artean besteak beste, janari eta produktu saskiak, denda batzuetan erosteko baleak...